



karate

**federación vasca
euskal federazioa**

**TXAPELKETA
BATZORDEA
FVK-EKF**



1. ARTIKULUA. Txapelketa Batzordea FVK/EKF-ko organo tekniko kolegiatu bat da, eta izaera erabakitzailea du. Bere prestakuntza eta iraupena deialdiaren araberrako Txapelketaren edo lehiaketaren ospakizunarekin baldintzatuta daude. Pertsona bakarrekoa izan daiteke.

2. ARTIKULUA. Txapelketa Batzordea edozein txapelketaren edo lehiaketaren ospakizunetan eratuko da, bere izendapena beharrezko aurrerapenarekin egitea derrigorrezkoa izanik. Hala izan ezean, ulertuko da funtzio hori FVK/EKF-ko Zuzendari Teknikoak bere gain hartzen duela, pertsona bakarrekoko organo modura.

3. ARTIKULUA. FUNTZIOAK:

A) FVK/EKF-ren ordezkari tekniko txapelketan.

B) Lehiaketaren edo txapelketaren ohiko garapena eragozten duten irregulartasunak edo gabeziak konpontzea.

C) Txapelketa arauen urraketekin lotutako ebazpenak ematea, ondorengo Diziplina Batzordera bidaltzeko jarduera alde batera utzita.

4. ARTIKULUA. Txapelketa Batzordeak esku hartzeko eskubidea izango du, auzi batek Arbitraje Zuzendariaren edo Zuzendari Teknikoaren eskumena gainditzen duenean, ebazpen organo kolegiatu modura jardunez.

5. ARTIKULUA. OSAKETA: Txapelketa Batzordea, pertsona bakarrekoa izaten ez denean, ahotsa eta boto eskubidea duten ondorengo kideekin osatuko da:

1. FVK/EKF-ko Zuzendari Teknika, Txapelketa Batzorde horretako presidentzia eta ordezkari beteko dituen.

2. Arbitroen Saileko Zuzendaria.

3. Kirolari bat, dagokion txapelketan bere horretan partaide izango ez dena eta FVK/EKF-ko Presidenteak xede horretarako izendatuko duena.

4. Arbitro bat, ospatzen ari den txapelketa mota arbitratzeko eskatzen den titulazioaren jabe izanik, bere horretan jardungo ez dena eta FVK/EKF-ko Presidenteak izendatuko duena.

6. ARTIKULUA. Batzordearen helburua da deialdiaren araberrako kirol jardueraren ohiko garapena lortzea, kirol ospakizunaren funtzionamendu normalerako azkartasunez jokatuz.

7. ARTIKULUA. ESKU-HARTZEA: Txapelketa Batzordeari dagokio esku-hartzea ofizioz edota ondorengo eskabideagatik:

a) Organizazioko zuzendaria edo azpi-zuzendaria.

b) Ordezkariaren inskripzio-orrietan bere horretan azaltzen den entrenatzaile ofiziala.

c) Inplikaturako Lurralde Federazioko Presidente, bere kasuan.

8. ARTIKULUA. Batzordearen eraginpean dauden auziak bere kideen bozketa bidez ebatziko dira, organo kolegiatu bezala aho batez ebazteko aukera izanik. Batzordeko kide guztiek izenpetutako dagokion aktan islatuko da.

9. ARTIKULUA. Batzordeak Txapelketako edo partiduko txosten bat aurkeztuko du, sortutako gertakariak, horiek konpontzeko egindako ekintzak, hartutako neurriak, gertakarian esku hartu duten alderdi “ofizialak”, eragozpenak, oharrak hala nola balizko diziplina arau-hausteeekin lotutako informazio guztia barne hartuko dituen, jarraian Diziplina Batzordera bidaltzeko.

Txosten hori Batzordeko akta izango da, hitzarmena eta ebazpena barne hartuko dituen eta bere kide guztiek izenpetuko dutena.

Txapelketa Batzordeko akta beharrezko baliabide dokumentala izango da.

10. ARTIKULUA. ARDURA: Txapelketa Batzordea bere erabakien arduraduna izango da FVK/EKF-ko Presidentearen aurrean.

11. ARTIKULUA. HITZARMENEN BETEARAZPENA: Txapelketa Batzordearen erabakiak, erabakigarriak eta betearazleak dira izango dagokion lehiaketaren edo txapelketaren garapenean zehar.

12. ARTIKULUA. OFIZIOZKO IZAPIDEAK: Presidenteak batzordeko kideak etortzeko agindua eman ahal izango du, lehiaketaren edo txapelketaren garapenean hautemandako gertakari baten aurrean.

13. ARTIKULUA. PARTE INSTANTZIA.

1. Txapelketa Batzordea behar adina aldiz bilduko da, ofizioz edo parte instantzia dela medio.

2. Bere eskubideak betetzeko interesa duenak edo dutenek sortutako irregulartasuna edo gertakaria idatziz aurkeztuko dute/dituzte, txapelketako organizazioak erabilgarri izango duen inprimaki ofizialean.

3. Interesdunek inprimaki ofiziala hirukoiztuta beteko dute, egokitzat jotzen diren adierazpenak eginez.

4. Alegazioen idatzia aurkeztean, izapide gastu bezala 200,00€-ko ekarpena egingo dute.

5. Errefusatu egingo dira irain, erronka edota errespetu ezaren tonuarekin egindako adierazpenak, horiek Diziplina Batzordera bidali ahal izanik.

6. Era berean, errefusatuak izango dira Txapelketa Batzordearen ustean txapelketako prozedurekin bat etortzen ez direnak, Txapelketa Batzordearen gaitasunak indargabetzeko ahaleginean.

14. ARTIKULUA. HITZARMENAK ERREKURRITU AHAL DIRA. Batzordearen erabakiak inprimaki ofizialean errekurritu ahal izango dira motibatutako idatziaren bidez, gehienez 24 orduko epean, FVK/EKF-ko Batzorde Teknikoaren edo Diziplina Batzordearen aurrean.

Batzorde Teknikoaren aurrean errekurrituko dira lehiaketaren edo txapelketaren garapen normala eragozten duten irregulartasunak edo gabeziak, betiere horiek diziplina arau-haustetzat hartu ezin direnean.

Diziplina Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira txapelketa arauekin lotutako ebazpenak eta arau-haustekak, FVK/EKF-ko Arbitraje Araudian, Diziplina Araudian edo Estatutueta azaltzen den edukiari jarraiki.

15. ARTIKULUA. ERREKURTSOAK.

A) Batzorde Teknikoa, errekurtsoa jasotzean, ezohiko saioan bilduko da; egokitzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango du, hala badagokio, inplikaturako alderdiengana helaraziko du eta gehienez 15 eguneko epean interesdunei jakinaraziko zaien ebazpena emango du.

B) Diziplina Batzordeak, errekurtsu horien ebazpenerako, Ohiko Prozeduraren inguruan FVK/EKF-ko Estatutueta xedatua beteko du.

.- Audientzia izapidea bermatuko du interesdunentzat.

.- Egokitzat jotzen dituen adina txosten eta akta eskatuko ditu.

.- Epai bat eman aurretik, horren edukia helaraziko du interesdunengana, haiek jasotzen dutenetik 48 orduko epean egokitzat jotzen dutena adierazi dezaten.

.- Interesdunari ebazpena jakinaraziko dio.

.- Diziplina Batzordeko hitzarmenak errekurritu ahal izango dira Euskadiko Kirol Justiziaren Batzordearen aurrean.

MARIA M. MARTINEZ
E.F.KARATE IDAZKARIA

JOS E MANUEL COLAS MOSQUERA
E.F.KARATE PRESIDENTEA O.E.

